



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko apirilaren 10a

36. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-26/CCOI-00002. “Mélidako Udalaren kontu orokorra, 2023” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-26/CCOI-00002. “Mélidako Udalaren kontu orokorra, 2023” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko martxoaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Mélidako Udalaren kontu orokorra, 2023” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA

	ORRIALDEA
I. SARRERA	4
II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA	4
III. IRITZIA	5
III.1 Fiskalizazio finantzarioko iritzia ukatzea	5
III.2 Legedi-betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzia, aurkakoa	5
IV. IRITZIAREN OINARRIA	5
IV.1 Fiskalizazio finantzarioari buruzko iritzia ukatzearen oinarria	5
IV.2 Legedi-betetzearen fiskalizazioari buruzko aurkako iritziaren oinarria	6
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK	6
VI. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA	7
VII. MÉLIDAKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA	7
VIII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA	7
VIII.1 Kontuen Ganberaren erantzukizuna fiskalizazio finantzarioan	7
VIII.2 Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioan	7
IX. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK	8
1. GEHIGARRIA. MÉLIDAKO UDALAREN KONTU OROKORRAREN LABURPENA, 2023KO EKITALDIA	9
2. GEHIGARRIA. MELIDAKO UDALA	13
2.1 Informazio orokorra	13
2.2 Egindako jarduera	13
3. GEHIGARRIA. ARAU ESPARRUA	14
4. GEHIGARRIA. IRITZIAREN OINARRIARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA	15
4.1 Fiskalizazio finantzarioari buruzko iritzia ukatzea	15
4.2 Legedi-betetzearen fiskalizazioari buruzko aurkako iritzia	16
5. GEHIGARRIA. ERREGULARTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK	17
5.1 2023ko aurrekontu orokorra	17
5.2 2023ko aurrekontuaren likidazioa	17
5.3 Aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasuna	18
5.4 Pertsonal-gastuak	18
5.5 Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	20
5.6 Inbertsioak	21
5.7 Transferentzia arruntetako gastuak	22
5.8 Tributuak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	23
5.9 Transferentziengatiko diru-sarrerak	24
5.10 Ondareko diru-sarrerak	25
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK	26
KONTUEN GANBERAREN ERANTZUNA BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK DIRELA-ETA	27

I. SARRERA

Mélidako Udalaren osoko bilkurak, 2023ko ekainaren 28an egindako saioan, Kontuen Ganberari Mélidako Udalaren (aurrerantzean, udala) 2019-2023 aldiko kontu orokorraren fiskalizazioa eskatu zion.

Eskaerari erantzuteko, Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat etorrituz, 2023ko ekitaldiko kontu orokorraren finantza fiskalizazioa jaso zuen 2024ko fiskalizazio-programan, baita, harekin batera, legezotasuna betetzeari buruzko fiskalizazioa ere.

Landa-lana bi teknikarik, auditoretza-teknikari batek eta auditore batek osatutako lantaldeak egin du, eta Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren ere izan dute.

Lanaren emaitzak jakinarazi egin zitzaizkion Mélidako Udaleko alkateari, alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Epea amaituta, Mélidako Udaleko alkatetzak alegazioak aurkeztu ditu. Alegazioak, behin aztertuta, txostenean jaso dira Kontuen Ganbera honen erantzunarekin batera, eta, horrenbestez, txostena behin betikotzat jotzen da.

Txostenaren diru-zenbatekoei dagokienez, biribildu egin dira, zentimorik ager ez dadin. Datuek zenbateko zehatz bakoitza biribilduta adierazten dute, eta ez biribildutako datuen batura. Ehunekoak ere balio zehatzen gainean kalkulatu daude, eta ez biribildutako balioen gainean.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Gure lanaren xedea izan da gai hauei buruzko iritzia ematea:

- Ea kontu orokorrak, alderdi adierazgarri guztietan, irudi fidela ematen duen 2023ko abenduaren 31ko ondareari, finantza-egoerari, aurrekontu-likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzeko den arau-esparruari jarraikiz eta, bereziki, bertan jasota dauden kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta irizpideei jarraikiz.
- Ea udalak 2023ko ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta kontu orokorrean jasotako informazioa bat datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzeko zaion araudiarekin.

Honako hauek osatzen dute lanaren norainokoa:

- 2023ko ekitaldiko¹ kontu orokorra, zeinaren edukia baita aurreikusita dagoena irailaren 21eko 273/1998 Foru Dekretuan, Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Bakuneko Jarraibidea onesten duen horretan.
- 5. gehigarrian adierazitako laginetan jasotako eragiketak.

Atzerapen nabarmenak izan dira Udalak Ganberari igorritako agiriei dagokienez. Landa-lanean, auditore taldeak eskatutako informazioaren eta agirien zati adierazgarri bat ez zuten igorri, nahiz eta lau alditan eskatu, erantzunik jaso gabe. Agiri horietako gehienak (158 agiri guztira) txostenaren zirriborroa eztaba-datzeko fasean aurkeztu zituzten azkenean.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoak 2023ko ekitaldia hartzen du, baina beste ekitaldi batzuei buruz ere egin dira behar ziren egiaztapenak, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

¹ Ez dago jasota osoko bilkurak kontu orokorra onetsi duenik.

III. IRITZIA

III.1 FISKALIZAZIO FINANTZARIOKO IRITZIA UKATZEA

Nafarroako Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, organo eskuduna da Mélidako Udalaren kontu orokorrak fiskalizatzeko. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: 2023ko abenduaren 31ko balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontua, aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, eta data horretan bukatutako ekitaldiari dagokion memoria.

Ez dugu iritzirik ematen Mélidako Udalaren 2023ko abenduaren 31ko kontu orokorren ganean. "Iritzi finantzarioari buruzko iritzia ukatzearen oinarria" atalean deskribatutako egitatearen eragin arrunt nabarmena dela eta, ezin izan dugu auditoretzaren ebidentziarik lortu, kontu orokorreari buruzko auditoretzaren iritzi bat emateko oinarri nahikoa eta egokia ematen digunik.

III.2 LEGEDI-BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRITZIA, AURKAKOA

Nafarroako Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, fiskalizatu egin du ea Mélidako Udalak 2023ko ekitaldian legezketasuna bete duen.

Gure ustez, gure txostenaren "Legedi-betetzeari buruzko iritziaren oinarria" atalean azaldutako alderdiek eragin arrunt handia dutenez, Mélidako Udalaren 2023ko ekitaldiko kontu orokorrean islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa ez datoz bat funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

IV. IRITZIAREN OINARRIA

IV.1 FISKALIZAZIO FINANTZARIOARI BURUZKO IRITZIA UKATZEAREN OINARRIA

- Udalak ez du barneko kontrol sistemarik egindako eragiketak behar bezala erregistratu eta kontabilizatzeko, eta egoera-orri finantzarioetan egoki islatzeko.

- Ez dago ondasunen eta eskubideen inbentario baloratu baten berririk. 2023an 1,41 milioi euroko inbertsioak exekutatu ziren; halere, balantzeko ibilgetuaren epigrafean zero euroko saldoa ageri da.

- 21 lotura-poltsa gainditu dira (509.444 euro guztira); hau da, 2023ko betebehar onartu guztien ehuneko 17.

- Ekitaldi itxietako kobratu gabeko eskubideen saldoan ez dira ageri gutxienez 2018 baino lehenagoko saldoko 28.918 euro, baina agentzia exekutiboa 2004ko ekitalditik kobratu gabe dauden zorren kobrantza kudeatzen ari da².

- Ez da egin ukitutako finantzaketaren desbideratzeen jarraipenik, ezta baliabide atxikiena ere, 4. apendizean zehaztutakoaren arabera.

Ondorioz, ezin izan dugu zehaztu horrek zer ondorio dituen Mélidako Udalaren 2023ko ekitaldiko kontu orokorren ganean.

² Guztizko zenbatekoaren ehuneko 25 2018 baino lehenagoko ekitaldietatik dator.

IV.2 LEGEDI-BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO AURKAKO IRITZIAREN OINARRIA

- Udalak ez du barneko kontrol sistematik araudi aplikagarria betetzea bermatzen duenik.
- Epe exekutiboan ez zaio agentzia exekutiboari 2020-2023 aldiko zorrik igorri kudeatu eta kobratzeko³, alde batera utzita herri-lurrei eta isunei buruzkoak, eta horrek kudeatu ez ziren 2020ko zorrak preskribatzea ekarri du. Ezin izan dugu haien zenbatekoa zenbatu.
- Aurrekontuko 104.742 euroko aldaketa baten espedientea aztertuta, haren izaeraren sailkapenean eta zenbatekoan inkohherentziak antzeman dira ebazpenen, kontu-hartzaitzaren txostenaren eta kontabilitateko erregistroaren artean. Era berean, alkatetzak aurrekontua betearazteko oinarri jarraikiz onetsi zuen, baina aplikatu beharreko foru-araudiaren aurkakoak dira, eta aldaketa, horrenbestez, eskumenik ez duen organoak onetsi zuen.
- Aztertutako lau kontratazio-espedienteetatik hirutan kontu-hartzaitzaren txostenek aurrekontuko kontsignazio nahikoa dagoela adierazten dute; nolahi ere, adierazitako aurrekontu-aplikaziorik ez dago edo haren lotura-poltsako kreditua ez da aski.
- Aztertutako hornidura elektrikoaren kontratuan, 1,13 milioi euroan adjudikatuta, zenbait ez betetze antzeman ditugu; besteak beste, baldintza-agirien edukari, publizitateari eta kontratuaren formalizazioari buruzkoak. 4. apendizean zehaztuta daude:
- Udalak salbuespena onetsi eta aplikatu zuen eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergan (aurrerantzean, EIOZ), 3.000 eurotik beherako obretarako, indarrean den araudiaren kontra.
- Udalak ehuneko 1,5eko indizea⁴ onetsi zuen jarduera ekonomikoen gaineko zergarako (aurrerantzean, JEZ), indarrean dagoen araudiak ezarritako 1,4tik gorakoa.
- Munta txikiko kontratu gisa izapidetu dira segidako zerbitzu-emateak eta hornidura errepikakorrak, nahiz eta horien balio zenbatetsiak gainditu egiten duen araubide horren bidez izapidetuak izateko onartzen den gehieneko zenbatekoa. Oker izapidetutako gastua, gutxienez ere, 39.056 eurokoa izan da.

Kanpo-kontrolako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioen gaineko ISSAI-ES 400 arauan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio gida praktikoa (GPF-OCEX) erabili ditugu. Arau horien indarrez ditugun erantzukizunak aurrerago deskribatzen dira, txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean, hain zuzen ere.

Legedi-betetzeari buruzko gure fiskalizazioari aplikatzekoak zaizkion etika-eskakizunarekin eta independentzia defendatzearen eskakizunarekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du betetzeari buruzko gure fiskalizazio-iritzi negatiboari eusteko.

V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK

Auditoretzako gai giltzarri dira gure iritzi profesionalaren arabera esanahi handiena izan dutenak aztertutako aldiko Kontu Orokorrari egin diogun fiskalizazioan. Gai horiek Kontu Orokorraren osotasunari buruzko gure auditoretzaren testuinguruan eta Kontu Orokorrari buruzko gure iritzia taxutzerakoan jorratuak izan dira, eta ez goaz bereiz adieraztera afera horiei buruzko iritzirik.

Salbu eta txosten honetako "Fiskalizazio finantzarioari buruzko iritzia ukatzearen oinarria" atalean eta "Legezketasunari buruzko aurkako iritziaren oinarria" ataletan azaldutako gaiak, ez dugu gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako ezein gairen berri ematen.

³ Udalak adierazi digunez, 2022tik 2025era bitartean kobratu gabeko zorra 2026an igorri zaio agentzia exekutiboari.

⁴ 2026ko ekitaldian araudia egokitu da.

VI. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA

Ez dago jasota entitatearen Osoko Bilkurak 2023ko kontu orokorra onetsi duenik.

VII. MÉLIDAKO UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Udaleko idazkaritza/kontu-hartzailtza da kontu orokorra egiteko ardua duena. Halako moduz egin behar du non leialki irudikatuko baititu entitatearen aurrekontu-likidazioa, ondarea, finantza-egoera eta emaitzak, entitateari aplikatzekoa zaion finantza-informazio publikoaren arloko araudia beterik.

Udaleko gobernu- eta administrazio-organoei bermatu behar dute, halaber, aipatutako kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin.

Udalaren erantzukizuna da, gainera, beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezartzea, bermatu ahal izateko Kontu Orokorrean ez dagoela iruzurraren edo erroreen ondoriozko oker materialik eta egindako jardueran ez dagoela lege-urratzerik.

VIII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

VIII.1 KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA FISKALIZAZIO FINANTZARIOAN

Fiskalizazio finantzarioan, gure erantzukizuna da entitatearen kontu orokorrak fiskalizatzea in-darrean dagoen kontuen auditoretza-jarduera arautzen duen araudiari jarraikiz, eta auditoretza-txostena egitea.

Alabaina, gure txostenaren "Iritzia ukatzearen oinarria" atalean deskribatutako kontuen adieraz-garritasuna dela eta, ezin izan dugu auditoretza-ebidentziarik lortu, oinarri nahikoa eta egokia ematen duenik urteko kontu hauen auditoretza finantzarioko iritzia emateko.

Entitatearekiko independenteak gara, kontu orokorreari buruzko gure fiskalizazioan aplikatu behar diren etika-alorreko eta independentziaren defentsaren alorreko baldintzek ezartzen duten bezala, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak eskatzen duenez gero.

VIII.2 NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA LEGEDI-BETETZEARI BURUZKO FISKALIZAZIOAN.

Legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioan, honako hauek dira gure helburuak: arrazoizko ziurtasun bat lortzea 2023ko ekitaldian Udalak gai fiskalizatueta egindako jardueretan ez-betetze adierazgarririk ez egoteaz, eta legedi-betetzeari buruzko fiskalizazio-txosten bat egitea, gure iritzia jasotzen duena.

Arrazoizko ziurtasuna ziurtasun-maila handia da, baina ez du bermatzen fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudia betez eginiko fiskalizazio batek beti aurkituko duenik ez-betetze adierazgarri bat, halakorik badagoenean. Ez-betetzeak iruzur edo akatsen ondorio izaten ahal dira, eta materializat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta.

Kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio-jarduerari buruzko araudia betez egindako fiskalizazio baten atal gisa, gure irizpide profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarre-rari eusten diogu auditoretza osoan zehar. Gainera:

- Iruzur edo akatsen ondoriozko ez-betetze adierazgarriak izateko arriskuak identifikatu eta balioesten ditugu, auditoretza-prozedurak taxutzen eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta gure iritzia oinarria emateko behar besteko eta behar bezalako auditoretza-ebidentzia lortzen dugu. Iruzurraren ondoriozko ez-betetze aipagarri bat ez atzemateko arriskua handiagoa da erro-rearen ondoriozkoa denean baino; izan ere, iruzurra dagoenean baliteke tartean izatea kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, berariazko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Fiskalizatorako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagutza ez dugu erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunaren inguruko iritzia emateko helburuarekin eskuratzen, baizik eta, ego-era zein den kontuan hartuta, egokiak diren ikuskaritza-prozedurak diseinatzeko.

- Ebaluatzen dugu ea prozedurak egokiak diren, eta ea kudeaketa-organoak emandako informazioa arrazoizkoa den.

Entitatearen gobernu-organoarekin harremanetan jartzen gara helburu izanda, besteak beste, planifikaturiko auditoretza proben irismenaz, proba horiek egiteko uneaz eta auditoretzaren aurkikuntza adierazgarriez jardutea, bai eta fiskalizazioan zehar barne-kontrollean identifikatzen dugun edozein hutsune adierazgarri dagokionez ere. Entitatearen gobernu-organoari jakinarazi zaizkion gorabeheren artean, zehazten dugu zein izan diren betetzearen fiskalizazioan munta handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzaren gai giltzarriak.

IX. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK

Ganbera honen iritziz garrantzitsuenak diren *gomendioak* jasoko ditugu hemen:

- *Barneko kontrol sistema eraginkorra ezartzea, haren bidez bermatua egon dadin araudia betetzea, behar bezalako kontabilitate- eta aurrekontu-kudeaketa, bai eta administrazio-kudeaketaren fiskalizazio egokia ere.*

- *Kontabilitate-espeditanteetan kontabilizatzeko eragiketen frogagiriak jasotzea.*

- *Gasturik ez egiteko ahaleginak egitea aurrekontu-kreditu egoki eta behar bestekorik ez dagoenean; horretarako, aldezturik izapidetzea, kasua bada, beharrezkoak diren aurrekontu-aldaketak.*

- *Kobratu gabeko zorra agentzia exekutiboari bidaltzea, borondatezko epean kobratzeko epea amaitutakoan, epe exekutiboan premiamendu-prozeduraren bidez kobratzeko.*

- *Ekitaldi itxietako zordunen kontabilitate-saldoak araztea eta berdinkatzea zerga bilketako aplikazioaren saldoekin eta agentzia exekutiboak kudeatutako saldoekin.*

- *Finantzaketa lotua eta baliabide atxikiak dituzten gastuen kontrola eta jarraipena egitea, eta aurrekontu-emaitzari eta diruzaintza-gerakinari egotzitako finantzaketaren desbideratzeak behar bezala kalkulatzeko.*

- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentario balioztatua egin eta onestea.*

- *Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren indizea egokitzea araudi aplikagarrian finkatutako mugetara.*

- *Zerga-onurak mugatzea legeria aplikagarrian jasotako kasuetara.*

- *Kontratu-lizitazio prozedura egokia izapidetzea halako prestazioetarako non balio zenbate-tsiak gainditu egiten baititu munta txikiko kontratuetarako ezarritako mugak.*

- *Baldintza-agirietan ezartzea zer formula erabiliko diren haien bidez ebaluatu beharreko adjudikazio-irizpideen puntuazioa kalkulatzeko.*

- *Aldizkako banku-berdinkatzeak egitea eta dokumentu bidez haien berri jasotzea.*

Gainera, finantza-fiskalizazioaren eta legedi-betetzearen fiskalizazioaren emaitza gisa, beste gomendio batzuk jaso ditugu txosten honen 5. gehigarrian, beste ohar eta aurkikuntza batzuei buruzkoan.

Javier Marticorena Chapa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta jaulkitzen da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondotik.

Iruñean, 2026ko martxoaren 11n

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

1. GEHIGARRIA. MÉLIDAKO UDALAREN KONTU OROKORRAREN LABURPENA, 2023KO EKITALDIA**2023ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria⁵**

Gastu-aurrekontuaren exekuzioa. Sailkapen ekonomikoa

Gastuak	Hasierako kreditua	Aldea	Behin betiko kreditua	Onartutako betebehargarbiak (OBG)	Ordainketak	Betetakoa (%)	Ordainketak (%)
1. Pertsonal-gastuak	304.376	82.775	387.150	429.898	429.898	111	100
2. Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	939.018	95.536	1.034.555	1.019.924	1.014.402	99	99
3. Gastu finantzarioak	1.000	6.000	7.000	3.669	3.669	52	100
4. Transferentzia arruntak	32.850	7.062	39.912	36.973	29.306	93	79
5. Kontingentzia eta bestelako ezusteetarako funtsa	7.856	0	7.856	5.499	5.499	70	100
6. Inbertsio errealak	1.569.629	-86.631	1.482.998	1.409.667	1.407.530	95	100
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	0
8. Aktibo finantzarioak	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	37.000	0	37.000	32.062	32.062	87	100
Guztira	2.891.729	104.742	2.996.471	2.937.692	2.922.366	98	99

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Diru-sarrerak	Hasierako aurreikuspena	Aldea	Behin betiko aurreikuspena	Onartutako eskubidegarbiak (OEG)	Kobrantzak	Betetakoa (%)	% Kobrantzak
1. Zuzeneko zergak	278.409	0	278.409	320.207	305.323	115	95
2. Zeharkako zergak	15.000	0	15.000	20.202	20.202	135	100
3. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	82.146	0	82.146	119.041	115.124	145	97
4. Transferentzia arruntak	769.040	104.742	873.782	454.036	454.036	52	100
5. Ond. diru-sarrerak eta herri-aprobetx.	642.699	0	642.699	672.831	143.592	105	21
6. Inbertsio errealen beste-entzea	0	0	0	7.921	7.921	0	100
7. Kapital-transferentziak	954.380	0	954.380	956.278	956.278	100	100
8. Aktibo finantzarioak	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	150.055	0	150.055	0	0	0	0
Guztira	2.891.729	104.742	2.996.471	2.550.516	2.002.476	85	79

⁵ Udalak aurrekontuaren likidazioan onetsitako egoera-orri finantzarioekin bat datoz.

2023ko ekitaldiko aurrekontu-emaiza

Kontzeptua	2022*	2023
+Onartutako eskubide garbiak	2.204.941	2.550.516
-Onartutako betebeharrak garbiak	2.689.944	2.937.692
= Aurrekontu-emaiza	-485.002	-387.177
Doikuntzak		
-Finantzaketaren desbideratze positiboa	0	0
+Finantzaketaren desbideratze negatiboa	0	0
+Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	0
+Merkataritza-eragiketen emaitza	0	0
=Aurrekontu-emaiza doitua	-485.002	-387.177

*Auditatu gabeko ekitaldia

2023ko diruzaintzako gerakinaren egoera-orria

Kontzeptua	2022*	2023	Aldea (%)
+Kobratzeko dauden eskubideak	741.973	561.766	-24
+Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	736.564	548.040	
+Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	227.985	247.464	
+Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	661	890	
-Bilketa zaileko eskubideak	223.237	234.629	
-Ordaintzeko dauden betebeharrak	53.709	67.857	26
-Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	12.641	15.326	
-Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	523	523	
-Aurrekontuz kanpoko gastuak	40.546	52.008	
+Diruzaintzako funts likidoak	720.712	515.544	-28
+Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0	0
=Diruzaintzako gerakina, guztira	1.408.976	1.009.452	-28
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa lotuko gastuengatikoa	0	0	0
Diruzaintza-gerakina, baliabide atxikiak direla-eta	0	0	0
Diruzaintza-gerakina gastu orokorretarako	1.408.976	1.009.452	-28

*Auditatu gabeko ekitaldia

Egoera-balantzea, 2023ko abenduaren 31koa⁶

Azalpena	2022*	2023
A Ibilgetua	0	0
1 Ibilgetu materiala	0	0
2 Ibilgetu ez-materiala	0	0
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0	0
4 Herri-ondasunak	0	0
5 Ibilgetu finantzarioa	0	0
6 Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0	0
B Zirkulatzaila	1.685.922	1.311.938
7 Itxitako aurrekontuetako zordunak eta aurrekontuz kanpokoak	228.646	248.355
8 Aurrekontuko zordunak	736.564	548.040
9 Kontu finantzarioak	720.712	515.544
Aktiboa, guztira	1.685.922	1.311.938

*Auditatu gabeko ekitaldia

Azalpena	2022*	2023
<i>Funts berekiak</i>	1.504.958	1.148.888
Ondarea eta erreserbak	1.601.522	1.073.373
Entregaturiko ondasun eta eskubideak	0	0
Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	-96.564	75.515
<i>Epe luzeko zorrak</i>	127.254	95.192
Jesapenak, maileguak eta fidantzak eta jasotako gordailuak	127.254	95.192
<i>Epe laburreko zorrak</i>	53.709	67.857
Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	41.068	52.531
Aurrekontuko hartzekodunak	12.641	15.326
Pasiboa, guztira	1.685.922	1.311.938

*Auditatu gabeko ekitaldia

⁶ Udalak egindako eta NFKAri igorritako, baina osoko bilkurak onetsi gabeko, kontu orokorrari dagokio.

2023ko ekitaldiko emaitza ekonomikoa⁷**Zorra**

Zorra - Azalpena		2022*	2023
61	Pertsonal-gastuak	381.890	429.898
62	Finantza-gastuak	489	3.669
64	Kanpoko lan, hornidura eta zerbitzuak	1.287.782	1.019.924
67	Transferentzia arruntak	31.789	36.973
68	Kapital-transferentziak	0	0
69	Kalkulatutako gastuak	0	0
D80	Ekitaldiko emaitza arrunt negatiboa	-96.564	0
D82	Salmenten eta inbertsioen ataleko galerak eta aparteko beste galera batzuk	0	0
D83	Aktibo finantzarioen salmentengatiko galerak	0	0
D84	Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	0	136
D89	Ekitaldiko emaitza ekonomiko negatiboa	-96.564	0

*Auditatu gabeko ekitaldia

Hartzekoa

Hartzeko - Azalpena		2022	2023
70	Salmentak	134.817	119.041
71	Jabetza- eta enpresa-errenta	867.747	672.831
72	Produktioari eta inportazioari lotutako tributuak	31.983	98.341
73	Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	164.866	164.335
76	Transferentzia arruntak	351.140	454.036
77	Kapitalaren gaineko zergak	54.832	57.531
78	Beste diru-sarrera batzuk	0	0
H80	Ekitaldiko emaitza arruntak	0	75.651
H82	Inbertsioen salmentako irabaziak	0	0
H83	Aktibo finantzarioen salmentaren irabaziak	0	0
H84	Altak eta preskripzioak, itxitako aurrekontuak	0	0
H89	Ekitaldiko emaitza ekonomiko positiboa	0	75.515

*Auditatu gabeko ekitaldia

⁷ Udalak egindako eta NFKAri igorritako, baina osoko bilkurak onetsi gabeko, kontu orokorrari dagokio.

2. GEHIGARRIA. MELIDAKO UDALA

2.1 INFORMAZIO OROKORRA

Mélida Tuterako merindadeko udalerrria da. 26 km²-ko azalera du, eta 715 biztanle zeuzkan 2023ko urtarrilaren 1ean.

Udalak ez dauka ez erakunde autonomorik, ez merkataritza-sozietaterik eta ez zerbitzu publikoen kudeaketarako bestelako erakunderik.

2023ko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren Udalaren datu ekonomiko nagusiak eta langileria-arlokoak:

Entitatea	Onartutako eskubideak	Onartutako betebeharrak	Langileak 2023/12/31n
Udala	2.550.516	2.937.692	5 ⁸

Mélida Errege Bardeako Komunitateko gozamen-kidea da, eta 444.000 euroko diru-sarrerak jaso zituen harengandik 2023an. Gainera, honako entitate hauetan parte hartzen du:

- Zarrakazteluko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
- Mairagako Mankomunitatea: uraren ziklo osoaren kudeaketa, hiriko hondakin solidoen tratamendua eta ingurumenaren babesa.
- Nafarroako Erdialdeko Kirol Zerbitzuen Mankomunitatea.
- Nafarroako Erdialdea Garatzeko Partzuergoa: eskualdearen garapen oso eta berdinazalea bul-tzatzea.

Zerbitzu horiek guztiek 34.025 euroko gastua ekarri diote Udalari.

2.2 EGINDAKO JARDUERA

Udalak honako zerbitzu hauek eta era honetan ematen ditu:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa	Zerbitzu-kontratua	Mankomunitatea	Partzuergoa
Argiteria publikoa		X		
Hilerria	X			
Hiriko hondakinen bilketa eta tratamendua			X	
Bide-garriketa	X			
Uraren ziklo integrala			X	
Estolderia			X	
Parke publikoa	X			
Liburutegia-ludoteka	X			
Gizarte zerbitzuak			X	
Kirol instalazioak	X			
Hirigintza	X			
Ingurumena	X			
Kulturaren sustapena eta kultur ekipamenduak	X			
Kirol-jarduerak				X
Ikastetxe publikoen mantentze-lanak	X			
Berdintasunaren sustapena				X
Turismo-jardueraren sustapena	X			
Merkataritza ibiltaria	X			

⁸ Pertsona batek lanaldi partzialeko kontratua du plantillatik kanpo.

3. GEHIGARRIA. ARAU ESPARRUA

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Udalari 2023an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

Estatuko araudia

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, Merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa, eta hura garatzeko araudia.
- 31/2022 Legea, abenduaren 23koa, Estatuko 2023rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa (sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen gastuen arloan aplikatu beharreko xedapenak).
- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema taxutzen duena.

Foru-araudia eta toki-entitatearena

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duena.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu publikoei buruzkoa.
- 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa.
- 270/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, aurrekontuari eta gastu publikoari buruzkoa; 234/2015 Foru Dekretua, irailaren 23koa, aurrekontu egiturari buruzkoa, eta 273/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, Nafarroako Toki Administrazioarentzat Kontabilitate Instrukzio Orokorra onestekoa.
- Udalaren 2023ko aurrekontuaren exekuzio-oinarriak eta udalaren gainerako barne-arauak.

4. GEHIGARRIA. IRITZIAREN OINARRIARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIGARRIA

Fiskalizazio finantzarioari buruzko iritzia ukatzea eta legedi-betetzearen fiskalizazioari buruzko aurkako iritzia justifikatu duten alderdien gaineko informazio zehatzagoa sartu dugu gehigarri honetan.

4.1 FISKALIZAZIO FINANTZARIOARI BURUZKO IRITZIA UKATZEA

- Egindako azterketan hutsune nabariak antzeman dira egindako barne-kontrollean, eta hutsune horiek egindako transakzioetako arrisku handien berri ematen dute, 5. gehigarrian garatutako gastuen zein diru-sarreraren arloetan. Zehazki:

- Kontabilitateko aplikazioan zehaztutako lotura juridikoko poltsak ez datoz bat aurrekontua betearazteko oinarrietan ezarritakoetan, eta horrek aurrekontu-kredituak egoki kontrolatzea zailtzen du.

- Ez da egin kanpoko aholkularitzak egindako nominaren aurretiko fiskalizaziorik, ezta ondotiko kontrolik ere.

- Ez da aldizkako banku-berdinkatzerik egiten.

- Dirulaguntza izendunen onuradunek aurkeztutako justifikazioak fiskalizatu izanaren berririk ere ez dago.

- Egindako azterketan ez digute eman diru-sarreraren eragiketa jakin batzuen euskarri informazioa. Hala:

- Lurraren kontribuzioaren lehen seihilekoko bederatzi ordainagiri berrikusi ditugu (13.084 euro guztira). Ez dute haietako hiruren kobrantza justifikatu (12.429 euro)⁹, eta ez dute argitu haietako bi (577 euro) agentzia exekutiboari igorri dizkioten kobrantza kudeatzeko.

- Laborantzako herri-lurren aprobetxamenduagatik egindako sei ordainagiri (244.496 euro) aztertu ditugu. Nolanahi ere, zerga bilketako aplikazioan kobratuta daudela ageri diren ordainagiriak (127.720 euro) benetan ordainduta daudela egiaztatu dugu.

- Egindako azterketan honako eragiketa hauen euskarri-dokumentaziorik ez dutela berretsi digute:

- Beste transferentzia batzuen kontzeptu ekonomikoan 2.468 euroko diru-sarrerak kontabilizatu daude, jaietan egindako jardueretatik datozenak eta egindako gastuen zati bat ordaintzera bideratuak.

- Igerilekuan sartzeagatiko diru-sarreraren ehuneko 14 (4.573 euro).

- Herriko jaietan egindako jardueren gastuak, kutzako eskudiruarekin ordainduak (4.241 euro).

- Ez da egin ukitutako finantzaketaren desbideratzeen jarraipenik, ezta baliabide atxikiena ere. Egindako azterketatik, honako hau ondorioztatzen dugu:

- Aztertutako obretako batean 168.856 euroko urteko desbideratze positibo metatua antzeman dugu.

- Determinazio libreko programatik jasotako diru-sarrerak (32.710 euro) eta Errege Bardeako gozamen-kide gisako ekarpena (444.000 euro) ez dira baliabide atxiki gisa jaso.

- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina gainbaloratua dago, aurreko bi paragrafoei dagokien zenbateko osoan bederen.

⁹ Bigarren seihilekoko ordainagiriaren kobrantza egiaztatu dugu.

4.2 LEGEDI-BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO AURKAKO IRITZIA

• Hornidura elektrikoaren kontratuan (1,13 milioian adjudikatuta) honako ez-betetze hauek antzeman ditugu:

- Eskaintza ekonomikoak baloratzeko formula matematikoak ez daude baldintza-agirian zehaztuta, eta ez daude azalduta, gerora, balorazio-aktan.
- Kontratuaren lizitazioa eta adjudikazioa ez dira argitaratu Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, eta adjudikazioa Nafarroako Kontratazioaren Atarian (aurrerantzean, NKA) argitaratu izanaren berririk ere ez dago.
- Ez dute bete eskaintzak aurkezteko ezarritako 30 eguneko gutxienerako epea.
- Sinatutako kontratuaren iraupena (48 hilabete) ez dator bat baldintza-agirian ezarritakoarekin (36 hilabete).

• Udalak okerki esleitu zituen, munta txikiko kontratu bezala, honako hornidura, segidako zerbitzu-emate eta obra hauek gutxienik:

Xedea	Hornitzaile kopurua	Gastua, guztira (2023)
Aholkularitza juridikoa	1	7.696
Telefonia	1	8.711
Udal aseguruak	2	11.093
Atezaintza	1	11.556
Guztira	5	39.056

5. GEHIGARRIA. ERREGULARTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Jarraian, ohar, iruzkin eta informazio gehigarri batzuk jaso ditugu, Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gertatzen ahal direnak.

Orobat, gehitu ditugu Udalaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetze aldera Ganbera honen ustez beharrezkoak diren gomendioak.

5.1 2023KO AURREKONTU OROKORRA

Mélidako Udaleko osoko bilkurak 2022ko abenduaren 19an eman zion behin betiko onespena aurrekontuari, eta 2023ko urtarrilaren 2an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean, NAO).

Udalaren 2023rako hasierako aurrekontuan jasotako gastuen eta diru-sarreraren hasierako aurreikuspena 2.891.729 eurokoa zen.

Diru-sarrera horiek aztertu ondotik, honako konklusio hauek azpimarratzen ditugu:

- Aurrekontuaren espedientea osorik dago, langileen eranskina izan ezik.
- NAO on argitaratutako aurrekontua osoko bilkuraren aktan jasotakoarekin bat etorriagatik, gutzitiko zenbatekoak ez datoz bat kapituluetakozko zenbatekoen baturarekin. Aldea 967.870 eurokoa da, eta inbertsioei buruzko 6. kapituluan dago.
- NAO on argitaratutako gastuaren gutzitiko zenbatekoak 4.144 euroko aldea du kontabilitateko aplikazioan jasotako aurrekontuarekin, zeina Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari (aurrerantzean, NFKA) igorri baitzitzaion.
- Espedientea NFKAra igortzeak araudian ezarritako 15 eguneko epea gainditu du.

5.2 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2023ko ekitaldiko aurrekontu likidazioaren espedientea 2024ko ekaineko alkatetzaren ebazpen bidez onetsi zen; alegia, araudian ezarritako epetik kanpo.

Aurrekontuaren likidazio espedienteko egoera-orriak aztertuta, honako hutsune hauek nabarmentzen ditugu:

- Ez daude ukitutako finantzaketaren egoera-orria eta baliabide atxikien egoera-orria.

Biltzen zailak diren eskubideekin lotuta, irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren irizpideari jarraiki zaio haiek zehazteko; halere, ez da bete aurrekontua betearazteko oinarrietan ezarritakoa, eta diruzaintza-gerakinaren 91.575 euroko gutxiegitza balorazioa sortu da.

Txosten honetako 'Gomendioen jarraipena' izeneko atalean horri buruz esandakoaz gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Aurrekontu likidazioa eta kontu orokorra onestea eta NFKAri igortzea araudian ezarritako epeen barruan.*
- *Aurrekontu likidazioaren espedientea osatzea araudian eskatzen den dokumentazioarekin.*
- *Kobratzeko dauden eta biltzen zailak edo ezinezkoak diren eskubideak zehaztea aurrekontua betearazteko oinarrietan ezarritakoaren arabera, edo oinarriak egokitzea foru dekretuan adierazitakora.*

5.3 AURREKONTU EGONKORTASUNA ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNA

Pandemiak eragindako krisiaren ondorioz, Europako Batzordeak Egonkortasun eta Hazkunderako Itunaren babes-klausula orokorra aplikatu zuen 2020an, eta haren aplikazioa luzatu zuen 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietarako.

2022ko irailaren 22an, Kongresuaren osoko bilkurak iritzi zion bazeudela Espainiako Konstituzioaren 135.4 artikuluan eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren 11.3 artikuluan ezarritako ezohiko inguruabarrak. Ondorioz, 2023an arau fiskalak eten egin ziren, eta ondorioz gabe utzi ziren aurrekontu egonkortasuneko, gastu arauko eta finantza iraunkortasuneko helburuak.

Mantendu egin ziren zorpetze-eragiketak baimentzeko araubidea eta merkataritza-zorren jasangarritasunerako betebeharrak.

Merkataritza-zorren jasangarritasunari dagokionez, udalak ez du argitaratu eta kontu-hartzaileak ez du jakinarazi ea hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak gaintitu ote duen berankortasunari buruzko araudian ezarritako 30 eguneko gehieneko epea.

Gure fiskalizazio lanaren ondorioz, txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean gaiari buruz adierazitakoaz gain, zera gomendatzen dugu: *hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea araudian xedatutakoaren arabera kalkulatzea eta argitaratzea.*

5.4 PERTSONAL-GASTUAK

Onetsitako aurrekontuaren likidazio egoeraren arabera, Udaleko pertsonal-gastuak 429.898 eurokoak izan ziren, eta haien exekuzioa behin betiko kredituen ehuneko 106 izan da. Ekitaldian sortutako gastuen guztizkoaren ehuneko 16 dira.

Kontzeptu ekonomikoa	OBG, 2023
Gobernu organoak	20.432
Funtzionarioak/kontratu administratiboa duten langileak	98.092
Langile lan-kontratudunak	198.838
Gizarte-kuotak	111.553
Langileen gastu sozialak	912
Familia-osagarria	70
Guztira	429.898

Nabarmentzen dugu pertsonal-gastuen ehuneko 33 enplegu sozial babestuko langile lan-kontratudunei dagozkie, eta ehuneko 26, berriz, kuota sozialei.

Plantilla organikoa

2023ko urtarrilaren 2ko NAOan argitaratu zen Udalaren 2023rako plantilla organikoaren behin betiko onespena. Hauexek dira plantillako lanpostuak eta horien egoera 2023ko ekitaldiaren itxiera-unean:

Kontzeptua	Udala
Plantillako lanpostuak	4
Beteta	2
Hutsik	2
Beteta dauden lanpostu hutsak	2
Lanpostu hutsak (%)	50
Bete diren lanpostu hutsak (%)	100
Behin-behinean bete diren lanpostuak (%)	50

2023an, plantillako bi lanpostu daude hutsik; eta biak aldi baterako beteta daude. Behin-behinekotasunaren indizea, begin egonkortzeko prozesua bukatua, eta kalkulatu aldi baterako betetako plazen eta behin betiko nahiz aldi baterako betetako plaza guztien arteko zatidura gisa, ehuneko 50ekoa zen.

Honako hau da plantillako lanpostuen araubide juridikoa:

Araubidea	Lanpostuak
Funtzionarioak	3
Langile lan-kontratudunak	1
Guztira	4

Plantilla organikoari buruz egin dugun azterketa eta argitaratutako langile-zerrenda kontuan hartuta, honako hutsegite hauek azpimarratzen ditugu:

- Langileen izen zerrendan, 2023ko abenduaren 31n, 2024ko plantilla organikoarekin batera argitaratutakoan, lanpostu bat hutsik ageri da, baina haren titularra aldi baterako dago eginkizun-gabetuta; horrenbestez, huts gisa sailkatzea ez da zuzena.

- 2023ko martxoaren 16an, udalaren osoko bilkurak plantilla organikoaren aldaketa bat onetsi zuen, eta ez zuten NAOn argitaratu. Erabakian bi lanpostutan maila Dtik Cra aldatzea jasotzen da. Alabaina, 2024ko plantilla organikoa (2023ko abenduaren 18ko NAOn argitaratu zen), aldaketa jasotzeaz gain, lanpostu baten araubide juridikoaren aldaketa ere jasotzen du, baina ez, ordea, lanpostuaren formalizazio zuzena.

- Langile lan-kontratudun bat maila goragoko lanpostu batean behin-behineko izendatzen da, eta hori araudiaren kontrakoa da.

Egonkortzearen azterketa

Enplegu publikoaren egonkortze-prozesua aztertu dugu aintzat harturik zer betekizun eta epe ezartzen diren uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legean, 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoan. Udala foru lege horri atxiki zitzaion 2022ko urriaren 20ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez.

Idazkari kontu-hartzailearen plaza ez da sartzen egonkortze-prozesuen azterketan; izan ere, toki-entitateetako idazkarien eta kontu-hartzaileen plazak NFKAK emandako dagokion gaikuntza-aren bidez betetzen dira.

Horri dagokionez, adierazten dugu aipatu gaikuntza-prozesua epaiaren zain dagoela —konstituzionaltasun-arazoa ebatzita—, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak konstituzio-kontraktasuneko arazo bat planteatu baitzuen maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legearen (Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa) bi artikuluri buruz.

Egonkortzeko prozesua behar bezala izapidetu zen. Honako alderdi hauek azpimarratzen ditugu:

- Udalak, araudian ezarritako 2022ko ekainaren 1eko epemugaren barruan, administrari laguntzaileko plaza bat egonkortzeko lan publikoaren eskaintza (aurrerantzean, LPE) onetsi zuen (2022ko maiatzaren 12ko NAOn argitaratu zen), araudian ezarritako betekizunak beteta.

- Plaza betetzeko, merezimendu-lehiaketaren sistemaren bidezko deialdi bakar bat onetsi zen. 2022ko urriaren 31n argitaratu zen, legeak dioenarekin bat, zeinak 2022ko abenduaren 31 ezartzen baitzuen epemugatzat. Ez zitzaion errekurtsorik aurkeztu ez LPEari ez deialdiari.

- 2023ko otsailaren 10ean izendapena NAOn argitaratu zen, araudian ezarritako epearen barruan.

Pertsonal-gastuaren egiaztapenak

Nominak kanpoko lan-arloko aholkularitza-etxe batek egiten ditu. Gero, Udalari bidaltzen dizkio artxiboak, kontabiliza eta ordain ditzan.

Plantilla organikoan jasotako lau lanpostuetako langileei ordaindutako ordainsari-kontzeptuak aztertu ditugu, bai eta bertan jaso gabeko lanpostuetan ari diren bi pertsonari dagozkionak ere.

Halaber, kargudun hautetsien ordainsariak egiaztatu ditugu. Aztertutako zenbatekoa 167.584 eurokoa da; alegia, urteko ordainsarien ehuneko 53.

Honako hauek dira langileria-gastuen fiskalizaziotik atera ditugun konklusioak:

- Kontabilizatutako nomina ez dator bat nominaren laburpenarekin (958 euroko aldea).
- Jasotako familia laguntzaren eta antzinasunaren kontzeptuak egokiak diren ezin izan dugu egiaztatu, langileen egoeraren egiaztagiria jasotzen dituen langileei buruzko espedienterik ez baitago.
- Egiaztatu dugunez, plantilla organikoan jaso gabeko lanpostu baterako kontratatutako pertsona batek hasierako kontratuan jasotakoa ez beste lanpostu bat bete du. Gainera, kontratuak hileko ordainsari gordina baino ez zuen jasotzen, banakapena zehaztu gabe. Ondorioz, jasotako ordainsariak zuzenak diren ezin izan dugu egiaztatu.
- Langileen gizarte-segurantzari dagokionez, ezin izan dugu egiaztatuta ordaintzeko dagoen saldoa likidazioarekin eta dagokion nominarekin bat datorren. Gainera, ez dute gizarte-segurantzian kotizatu ordaindutako nomina atzerapenengatik (774 euro).
- Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako atxikipearen hasierako eta bukaerako kontabilitate saldoa ez dator bat Nafarroako Foru Ogasunean aurkeztutako aitopenearekin (315 euroko aldea).

Kontuan hartuta gure lanaren ondorioak, bai eta txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean jasotakoak ere, honako hau gomendatzen dugu:

- *Sinatutako lan-kontratuetan aldi baterako lan-kontratudunen ordainsari kontzeptuak xehetasun handiagoz zehaztea.*
- *Lanpostuak betetzeko berariazko hautaketa prozesuak deitzea.*
- *Langile publiko guztien espediente administratibo egokia eta osatua izatea.*
- *Egiaztatzea ea bat datozen Gizarte-segurantzari eta Nafarroako Foru Ogasunari pertsona fisikoen errentaren gaineko zergagatik ordaindu gabe dauden saldoak eta aurkeztutako likidazioa, eta dagozkien saldoak erregularizatzea.*

5.5 ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO GASTU ARRUNTAK

Onetsitako aurrekontuaren likidazio egoeraren arabera, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak 1.019.924 eurokoak izan ziren. Ekitaldiko betebeharrak onartu guztien ehuneko 35 dira, eta haien exekuzio-maila behin betiko kredituen ehuneko 99koa izan da.

Honako hauek dira gastu arrunt nagusiak eta aurreko ekitaldiaren aldean izandako aldaketa:

Kontzeptua	2023
Azpiegiturak eta ondasun naturalak	244.596
Hornidurak	282.403
Askotariko gastuak	278.815
Dietak	15.050

Egiaztatu dugunez, dirulaguntza izendunak ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunt gisa oker kontabilizatu dira; 15.631 euro gutxienez, txosten honetako 5.7 atalean zehaztu bezala.

Zinegotziek osoko bilkuretara eta lan bileretara joateagatik jasotako dieten lagin bat aztertu dugu. 2023ko ekainaren 28ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez osoko bilkuretara eta lan bileretara joateagatik konpentsazio ekonomikoa onetsi zen¹⁰. Egiaztatu dugunez, lan bilerengatik dietaren eskatzaileak ez du aitortpena sinatzen, eta ez da ageri berrikusi denik ere.

¹⁰ 100 euro udaletxetik kanpoko osoko bilkura eta bileretara joateagatik, eta 50 euro entitatean osoko bilkurak prestatzeko lan bilerak egiteagatik. Kontzeptu guztiengatik, urteko gehieneko ordainsaria sei zinegotzientzat, gehienez, 17.000 eurokoa izanen da.

Administrazio-kontratazioa

Eraikinen, argien eta ponpatze-estazioaren hornidura elektrikoaren kontratuaren lizitazioa eta adjudikazioa aztertu ditugu.

Kontratua	Prozedura	Lizitatuak kopurua	Balio es- timatua	Lizitazio zenbatekoa	Adjudikazio zenbatekoa	Behere- rap.
Eraikinen, argi elektrikoaren eta ponpatze-estazioaren hornidura elektrikoa	Irekita	2	1.125.563	1.125.563	1.125.563	-

Aztertu ondotik, nabarmendu behar dugu legezko eskaerak diren zenbait betebeharrak exekutatzeko baldintza berezi gisa ezarri zirela; gainerakoei dagokienez, ez da betetze-mailaren jarraipenik egiten.

Munta txikiko kontratuak

Munta txikiko kontratazioa aztertu dugu. Hurrengo taulan adierazten da ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arrunten xehakapena zenbateko-tartearen arabera, bai eta aztertutako lagina ere.

(eurotan)					
Gastu arruntak, ondasunetan eta zerbitzuetan	Hornitzaile kopurua	Gastua, gutxitua	Hornitzaile kopurua	Aztertutako gastua	
15.000 euro gehi BEZa baino handiagoa	9	598.170	7	495.934	
3.750 eta 15.000 euro artekoa (gehi BEZa)	24	173.744	6	42.580	
Txikiagoa 3.750 euro gehi BEZa baino	197	248.010	-	-	
Guztira	230	1.019.924	13	538.514	

Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arrunten guztizkoaren ehuneko 53 egiten duen lagin bat aztertu dugu, kapitulu horretako gastuen hornitzaile guztien ehuneko seiri dagokiona.

NKAn ez da argitaratu munta txikiko kontratuen hiru hilean behingo informaziorik.

Kontuan hartuta gure lanaren ondorioak, eta txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean jasotako aholkuek gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Baldintza-agirietan ez jasotzea, exekuziorako baldintza berezi gisa, kontratistek, legez, nahitaez bete beharreko alderdiak.*
- *Eskatzea dieten eskaera aitortzaileak sinatuta egon dadin; espedientean egindako administrazio balidazioaren berri jasotzea, eta oker jaso5tako zenbatekoak itzultzeko eskatzea.*
- *Nafarroako Kontratazioaren Atarian munta txikiko araubide bereziaren bidez adjudikatutako kontratuen zerrendak hiru hilean behin argitaratzea.*

5.6 INBERTSIOAK

Onetsitako aurrekontuaren likidazio egoeraren arabera, 2023ko ekitaldiko inbertsioak 1.409.667 eurokoak izan ziren. Ekitaldian onartutako betebeharrak guztien ehuneko 48 dira, eta haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 95koa izan da.

Honako hauek izan dira 2023an egin diren inbertsio nagusiak:

Azalpena	OBG, 2023
Zinemako eraikina berritzea	661.997
Bide publikoen zoladura, oinezkoentzat egitea	324.704
Ikastetxe publikoa eraberritzea (berokuntza)	148.350
Lursailak eta etxebizitzak erostea	107.499
Eguzki plakak jartzea energia sortzeko	93.204

Honako espediente hauek aztertu ditugu:

- Zinema-areto, antzerki eta kontzertuetako eraikina eraberritzea:

Kontratua	Adjudikazio proz.	Lizitazaile kopurua	Lizitazioaren zenbatekoa BEZik gabe	Adjudikazioaren prezioa BEZik gabe	Behar-pena (%)
Zinema-areto, antzerki eta kontzertuetako eraikina eraberritzea	Irekita	3	686.287	686.286	0

- San Isidro kaleko sareak berritzea eta zolatzea, 348.294 euroko adjudikazio zenbatekoan: Lizitazio espedientearen administrazio kudeaketa Mairagako Mankomunitateari eskuordetzen zaio.

- Higiezin bat enkante publiko bidez zuzenean eskuratzea udal biltegia izateko, 105.000 euroan.

Aipatutako laginari dagokionez, honako ondorio hauek nabarmendu nahi ditugu:

- Legezko eskakizunak diren betebeharrak ezarri ziren eraikina eraberritzeko exekuzio baldintza berezi gisa; gainerakoei dagokienez, ez da haien betetze-mailaren jarraipenik egin.

- Eraikina eraberritzeko eskaintzak baloratzeko erabilitako formulak prezio beherapenik ez dagoenean ere ematen du puntuazioa, eta ez ditu aurreikusitako puntu guztiak banatzen.

- Epeak ez dira bete eraikina eraberritzeko lizitazio prozeduraren ondotiko fase hauetan: eskaintzak aurkezteko gutxieneko epea, adjudikazioa argitaratzea, kontratua formalizatzea eta obraren exekuzioa¹¹.

Egin dugun fiskalizazio-lanaren emaitza gisa, txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean jasotako aholkuek gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Baldintza-agirietan ez jasotzea, exekuziorako baldintza berezi gisa, kontratistek, legez, nahitaez bete beharreko alderdiak.*

- *Baldintza-agirietan balorazio ekonomikoko formulak ezartzea, eta haien bidez baztertzea puntuak ematea lizitazioaren zenbatekoa berdintzen duten eskaintzei, eta ahalbidetzea baldintza-agirietan ezarritako puntu guztiak banatzea.*

- *Kontratazio publikoari buruzko araubidean ezarritako epeak betetzea.*

5.7 TRANSFERENTZIA ARRUNTETAKO GASTUAK

Onetsitako aurrekontuaren likidazio egoeraren arabera, gastu kapitulu honetako exekuzioa ondotiko taulan jasota dago:

Kontzeptua	OBG, 2023
Mankomunitateei	26.002
Familiei	5.536
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	5.435
Guztira	36.973

Transferentzia arruntten gastuak 36.973 eurokoak izan ziren, ekitaldiko betebeharrak onartu guztien ehuneko bat. Haien exekuzio-maila behin betiko kredituen ehuneko 93 izan da.

Transferentzia arrunt guztien ehuneko 59 Zarakasteluko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari (aurrerantzean, OGZM) eman zaizkio, eta ehuneko 11 Mairagako Mankomunitateari; haiek izan dira onuradun nagusiak.

¹¹ Landa-lana bukatu zenerako, atzerapena ez zegoen justifikatuta, eta zegozkion zehapenak ere ez ziren eskatu.

Lau entitateri eginiko ekarpenen (kapituluko betebeharrak onartu guztien ehuneko 86) lagin bat aztertzearen emaitza gisa, zera antzeman dugu: OGZMri ordaindutako zenbatekoa baino 1.220 euro handiagoa da.

Egiaztatu dugunez, ez da egin dirulaguntzen plan estrategikorik, haien helburuak, lortu nahi diren eraginak, epeak, aurreikusiriko kostuak eta finantzaketa-iturriak jasotzen dituenik.

Halaber, elkarteei kultur jardueretarako emandako bost dirulaguntza izendun bederen identifikatu ditugu (15.631 euro). Azterketatik, honako konklusio hauek nabarmentzen dira:

- Ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunt gisa oker kontabilizatu dira.
- Entitatearen aurrekontuan ez da identifikatzen ez dagokion onuraduna, ezta zuzkidura ekonomikoa ere, aplikatu beharreko araudia urratuta.
- Ez dituzte Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratu.
- Orokorrean, dirulaguntzak lankidetzaren bidez bideratzen dira. Lankidetzaren hitzarmenek dirulaguntzaren xedea arrunt labur zehazten dute, eta ez dute justifikazio araubiderik ezartzen. Nolanahi ere, kasu batean ez dago ez hitzarmen formulaziorik, ezta dirulaguntza emateko ebazpenik ere.
- Oro har, izandako gastuak ez daude aski justifikatuta, eta aurkeztutako diru-sarrerak handiagoak dira diruz lagundutako jardueraren kostua baino.

Kontuan hartuta gure lanaren ondorioak, eta txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean jasotako aholkuek gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Dirulaguntzen plan estrategiko bat onestea, eta bertan zehaztea helburuak, eraginak, aurreikusitako kostuak eta finantzaketa-iturriak.*
- *Udal-aurrekontuko gastuen egoera-orrian dirulaguntza izendunak jasotzea, eta onuraduna nahiz aurrekontu-zuzkidura zehaztea.*
- *Izandako gastuak kontabilizatzea, haien izaera ekonomikoaren arabera.*
- *Dirulaguntzen emakida Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.*
- *Hitzarmen arauemaileetan eta dirulaguntza izendunak emateko ebazpenetan araudian eskatutako gutxieneko edukia gehitzea.*
- *Egiaztagiriak eskatzea ordenantzan ezarritakoari jarraikiz, dirulaguntzaren xedea beteta izandako gastuak eta jasotako diru-sarrerak egiaztatze aldera.*

5.8 TRIBUTUAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK

Onetsitako aurrekontuaren likidazio-egoeraren arabera, tributu, prezio publiko eta bestelako diru-sarrerengatik 2023ko ekitaldian onartutako eskubideak 459.449 eurokoak izan ziren. Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 18 dira, eta honako hauei dagozkie:

	2023ko OEG	2023ko OEGen gutzitzkoarekiko ehuneko
Zuzeneko zergak	320.207	13
Lurraren kontribuzioa	190.153	7
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	57.531	2
Hiri-lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	0	0
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	72.523	3
Zeharkako zergak	20.202	1
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergak	20.202	1
Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	119.041	5
Tributuak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak, guztira	459.449	18

Nabarmentzekoak dira:

- 2023an, 2022 eta 2023ko erroldak igorri ziren. Azkena 29.580 eurokoa izan zen.

Udalak aplikatutako zerga-tasak, oro har, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak jasotzen duen sortaren tarte ertain-altuan daude, ondotiko taulan ikusten den bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren kontribuzioa	0,25	0,25 - 0,50
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	0,5	
Ekonomia-jardueren gaineko zerga (EJZ)	1,5	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	15	8-25
Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	3	2-5

Egin dugun azterketaren ondotik, honako hau ondorioztatzen dugu:

- NFKAren 5.985 euroko ekarpena, JEZaren bilketa galeragatik, sarrera-aurrekontuko 1. kapituluaren kontabilizatzen da, baina 4. kapituluaren Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetako partaidetza gisa jaso beharko litzateke.

- Igerilekuan sartzeagatik diru-sarreraren ehuneko 24 ez daude kudeaketa programa informatikoan jasota.

Kontuan hartuta gure lanaren ondorioak, bai eta txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean jasotakoak ere, honako hau gomendatzen dugu:

- *JEZaren bilketa galeragatik konpentsazioa Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetako partaidetza gisa kontabilizatzea.*
- *Kudeaketa programa informatikoak igerilekuko sarrera eta ordainketengatik diru-sarrera guztiak jasotzea.*

5.9 TRANSFERENTZIENGATIKO DIRU-SARRERAK

Onetsitako aurrekontuaren likidazio-egoeraren arabera, transferentzia arruntengatik eskubide garbi onartuak 454.036 eurokoak izan ziren, eta kapital-transferentziengatik, 956.278 eurokoak; guztira, diru-sarrera guztien ehuneko 55ekoak izan ziren.

Kontzeptua	T.arrunt. OEG 2023	Kapit. transf. OEG 2023
Estatuko Administrazio Orokorretik	4.012	
Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Orokorretik	383.966	32.710
Nafarroako Foru Komunitateko erakunde autonomo eta agentzietatik	55.200	
Beste transferentzia batzuk	10.859	
Erakunde autonomo eta estatu-agentzietatik		479.569
Udalerriak taldekatzen dituzten beste entitate batzuetatik		444.000
Guztira	454.036	956.278

- Onetsitako aurrekontuaren likidazio-egoeraren arabera, hona hemen ekitaldian jasotako transferentzia arrunt nagusiak:

Aurrekontu aplikazioak	2023ko OEG
Nafarroako Foru Ogasunaren tributuetako partaidetza	326.295
Nafarroako Enplegu Zerbitzua	55.200
Nafarroako Gobernuaren beste transferentzia arrunt batzuk	40.672
Montepiorako dirulaguntza	12.358
Beste transferentzia batzuk familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei (ekarpen partikularrak)	10.859
Kontsultategia mantentzeko dirulaguntza	4.351
Genero-indarkeriaren kontrako itunaren programarako dirulaguntza	3.007
Estatuko tributuetako dirulaguntza (gasolina eta erregaia)	1.005
Bake Epaitegirako dirulaguntza	289
Guztira	454.036

Toki-entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zuzkidurari dagokion finantzia-zioa 326.295 eurokoa da; alegia, transferentzia arrunten ehuneko 72.

- Onetsitako aurrekontuaren likidazio-egoeraren arabera, hona hemen ekitaldian jasotako kapital-transferentzia nagusiak:

Aurrekontu aplikazioak	2023ko OEG
IDAE PIREP zinema-antzokirako dirulaguntza	479.569
Bardeako Komunitatea	444.000
Nafarroako Gobernuaren determinazio libreko funtsa	32.710
Guztira	956.278

IDAEk (Energiaren Dibertsifikazio eta Aurrezpenerako Erakundea) zinema berritzeko emandako dirulaguntza eta Bardeako Komunitatetik gozamen-kidea izateagatik jasotako ekarpena nabarmentzen dira.

- Udalaren informazio kontabilizatua NFKAk duenarekin bat datorrela egiaztatu dugu.

5.10 ONDAREKO DIRU-SARRERAK

Onetsitako aurrekontuaren likidazio-egoeraren arabera, ondareko diru-sarrerak 672.500 eurokoak izan ziren; hau da, udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 26. Haietatik, ehuneko 93 "La Quemada" herri-aprobetxamenduetatik datoz, jarraian zehaztutakoaren arabera:

Aurrekontu aplikazioak	2023ko OEG
Laborantzarako herri-lurren aprobetxamendua	623.626
Landa-finken errentamenduak (Soto Bajo zentr.)	28.726
Herri-larreen aprobetxamendua (eskortak)	20.148
Guztira	672.500

Laborantzako herri-lurren aprobetxamenduaren lagin bat aztertu dugu. Azterketatik ondorioztatzen dugu errolda epez kanpo igortzen dela eta borondatezko kobratzeko epea hurrengo urtean bukatzen dela.

Kontuan hartuta gure lanaren ondorioak, bai eta txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean jasotakoak ere, honako hau gomendatzen dugu *kudeaketa prozedurak indarrean dagoen araudira egokitzea, bereziki epeei eta jakinarazpenei dagokienez.*

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Mélidan, 2026ko martxoaren 9an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakari

Jose Ignacio Cabeza del Salvador jauna

Ansoleaga kalea 10,

31001 Iruña

Lehendakari jauna:

“Mélidako Udalaren kontu orokorra”ri buruz egindako behin-behineko txostenari erantzunez, bertan aztertutako gaien gaineko argibide hauek ematen dizkizut:

Lehenbizikoa. - Kontabilitatearekin lotuta aurkeztutako gomendioek laburbilduz eskatzen dute barneko kontrol sistema eraginkorra ezartzea, haren bidez bermatua egon dadin araudia betetzea, behar bezalako kontabilitate- eta aurrekontu-kudeaketa, bai eta administrazio-kudeaketaren fiskalizazio egokia ere. Argi dugu oraingo lan-kargak kontabilitatea eta aurrekontua ongi kudeatzea galarazten duela.

Gomendio horri dagokionez, errefortzu bat kontratatu behar dugu kontabilitate arloan, udal baliabideen behar bezalako administrazioarako behar diren kontabilitate eta aurrekontuko eskakizunak hobeki betetzeko.

Bigarrena. - Kontratazio publikoari buruzko gomendioekin lotuta, ahaleginduko gara baldintza-agiriak idazteko teknika hobetzen, barne hartuta behar diren balorazio formula guztiak, epeak beteta eta Europako publizitateari buruzko mugak aplikatuta.

Konpromisoa hartzen dugu, orobat, prestazioetarako kontratu-lizitazio prozedura hobetzeko, haien balio zenbatetsiak gainditu egiten baditu munta txikiko kontratueterako ezarritako mugak.

Hartarako, espero dugu langile berriak kontratatuta hobetu egingen dela Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen aplikazioa.

Hirugarrena. - Kobratu gabeko zorra agentzia exekutiboari igortzeari dagokionez, 2022, 2023, 2024 eta 2025ekoa igorri da, igorri gabe baitzegoen, neurri batean, amatasun-bajen ondoriozko langile aldatengatik, eta jasotako fitxategiak azkenean herritarrek ordaintzen dituzten akatsak ez dituztela baieztatzeko langile nahiz denbora faltagatik.

Laugarrena. - Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren indizea araudi aplikagarrian finkatutako mugetara egokituko da. Orduan 3.000 eurotik beherako obren salbuespena zegoen, eta okerra izanagatik, azaleratu egin dira aurkeztutako 3.000 eurotik beherako obra anitz, eta haiek Tafallako Etxebizitzak eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegora igorri eta behar bezala baloratu ondotik, eskatutako obrak teknikoki hobetzea lortu da, eta anitzetan arkitektoek idatzitako memoria baloratuak edo proiektuak eskatu dira; horrela jokatu ezean obra haiek oharkabean eta jarraipen teknikorik gabe egingen ziren. Halaber, EIOZaren azken zenbatekoa nabarmen handitu zen aurreko urteetakoaren aldean.

Deitutako lehen osoko bilkuran 3.000 eurotik beherako obren salbuespena ezabatuko da.

Bosgarrena. - Mélidako Udalak dirulaguntzak emateari buruzko iradokizunei dagokionez, Mélidako Udalak honako hau egingen du:

- Dirulaguntzen plan estrategiko bat onetsi, eta bertan zehaztu helburuak, eraginak, aurreikusitako kostuak eta finantzaketa-iturriak.
- Udal-aurrekontuko gastuen egeera-orrian dirulaguntza izendunak jaso, eta onuraduna nahiz aurrekontu-zuzkidura zehaztu.
- Dirulaguntzen emakida Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratu.
- Hitzarmen arauemaileetan eta dirulaguntza izendunak emateko ebazpenetan araudian eskatutako gutxieneko edukia gehitu.
- Egiatziari eskatu ordenantzan ezarritakoari jarraikiz, dirulaguntzaren xedea beteta izandako gastuak eta jasotako diru-sarrerak egiaztatze aldera.

Seigarrena. - Kudeaketa programa informatikoak igerilekuko sarrera eta ordainketengatik diru-sarrera guztiak jasotzeko gomendioari dagokionez, igerilekuetako sarrerak kudeatu eta kontabilizatzeko programa hobetuko dugu.

Benetan eskertzen ditut egindako gomendio guztiak, zalantzarik gabe laguntzen baitute Udal honen kudeaketaren etengabeko hobekuntza. Adecitasunez,

Francisco Javier Sesma Rodrigo

Mélidako Udaleko alkatea

KONTUEN GANBERAREN ERANTZUNA BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK DIRELA-ETA

Eskerrak eman nahi dizkiogu Mélidako Udaleko alkateari aurkeztu dituen alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio, zeina behin betiko gisa ematen baita, jotzen baita horiek egin den fiskalizazioaren esplikazio bat direla eta horren edukia aldatzen ez dutela.

Iruñean, 2026ko martxoaren 11n

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

